



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKARA TITULUEN ETA ZIURTAGIRIEN
ERREGISTRO BATERATUA (ETZEB) SORTU ZUEN ETA ARAUTZEN DUEN
DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA

LT DDLCN 1/2023

AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren lege aholkularitzak izenburuan adierazten den dekretu-proiektuari buruzko legezkotasun-txostena igor dezagula eskatu digu.

Txosten-eskaerarekin batera, dekretu-proiektuaren testua eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- Hasierako agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskara tituluaren eta ziurtagirien erregistro bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen dekretua aldatzeko prozedurari hasiera ematea agintzen duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Dekretu-proiektuaren lehen zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2021eko urriaren 8an igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Aurretiazko onespenezko agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskara tituluaren eta ziurtagirien erregistro bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua aldeztu aurretik onesten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena (euskeraz)
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren lege aholkularitzaren txosten juridikoa (euskeraz)

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tel. 945 01 86 46/30/31 – Fax 945 01 87 03



- Ekonomia eta Ogasun Saileko aholkularitza juridikoko buruak dekretu-proiektuari aurkeztutako alegazioak (gaztelaniaz)
- IVAPeko zuzendariak dekretu-proiektuari aurkeztutako alegazioak (euskeraz)
- Kontratazio publikoaren aholku batzordeak dekretu-proiektuari aurkeztutako alegazioak (gaztelaniaz)
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak dekretu-proiektuaren izapideketari buruz egindako memoria osagarria (euskeraz)
- Dekretu-proiektuaren 2. zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2022ko azaroaren 9an igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz).

Kontuan izan behar dugu dekretu-proiektuaren izapideketa hasi zenean (hasierako agindua 2021eko urtarrilaren 19an igo zen Tramitagunera) xedapen orokorrak izapidetzeko indarrean zegoen legea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea zela, eta, hortaz, egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea eta eskatzea, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, lege horretan xedatutakoarekin bat egin dela.

Ohartarazi beharra dago, hala ere, gaur egun indarrean dagoen legea beste bat dela, alegia 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, xedapen orokorrak egiteko prozedurarena. Lege horretako xedapen iragankorrak xedatzen duenez, ordea, lege hori indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidetuko dira amaitu arte. Beraz, aztergai dugun dekretu-proiektuaren izapideketaren legezkotasuna aztertzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea izango dugu abiaburu.

Hori horrela izanik, legezkotasun-azterketa egiteko bidali diguten dokumentazioaren artean ez da ageri Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua enpresaren gaineko eraginari buruz aurreikusitako txostena.

Artikulu horrek ezartzen duenez, Euskadiko Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz. Txosten hori nahitaezkoa izango da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozeduran.

Nolanahi ere, Sailaren lege aholkularitzaren txosten juridikoan jasotzen da ez dela aurreikusten aldaketek eraginik izango dutenik enpresen sorrera, abian jartze edo haien funtzionamenduaren arloan. Beraz, aipamen horrekin, betetzat jo liteke, nolabait, izapide hori.

Bidali diguten dokumentazioaren artean, ez da ageri ere dekretu-proiektuari buruzko memoria ekonomikorik. 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan jasotzen denez, "espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du".

Horren orde, dekretu-proiektuaren izapidetze-prozedurari hasiera ematen dion aginduan jasotzen da ETZEB erregistroaren tresna eta euskarri telematikoak dagoeneko erabat garatuta daudela, eta, hortaz, Dekretuaren aldaketa honek ez duela eragin ekonomiko berririk sortuko.

Generoaren araberako eragin-txostenik ere ez dago, baina hasierako aginduan eta Sailaren aholkularitza juridikoak egindako txostenean azaltzen da txosten hori eskatzea ez dela beharrezkoa.

EMAKUNDEren txostenik ere ez dago. Arauaren izaera ikusita, ordea, pentsa liteke beharrezkoa ez izatea, baina, Sailak txosten horrela iritzi badio, gomendagarria zatekeen hasierako aginduan horrela jasotzea.

LEGEZKOTASUN-AZTERKETA

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorritik igortzen dugu:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 b artikulua)
- 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (7.1 i artikulua)
- 8/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (15.1 a artikulua)

I.- Proiektuaren xedea, azalpena eta edukia

Espedientean dekretu-proiektuari buruzko bi zirriborro daude jasota, biak euskerazko eta gaztelaniazko bertsioetan: bata, 2021eko urriaren 8an Tramitagune aplikaziora igotakoa, eta bestea 2022ko azaroaren 9an igotakoa. Bada, bigarren zirriborro hori da txosten honetan aztertuko duguna.

Dekretuaren xedea da Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu zuen eta arautzen duen urriaren 16ko 222/2012 Dekretua aldatzea; hau da, beharrezko urratsak egitea erregistro horiek modu

bateragarrian jaso ahal izateko eta herri-erakundeek erraz kontsultatu ahal izateko.

Helburua da ETZEBn jasotzea; alde batetik, EAetik kanpoko erakundeek emandako eta EAEko legedian baliokidetutako titulu eta ziurtagiriak; eta, bestetik, euskaramaila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen dituzten aitortutako salbuespenak.

Bide batez, memoriak adierazten duen bezala, 222/2012 Dekretuaren aldaketa baliatzen da datu pertsonalei buruzko babes-neurriak eta lege-aipamenak Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitzeko.

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak bere azken xedapenetako lehenengoan jasotzen du, sail edo erakunde bakoitzak bere euskara tituluen eta ziurtagirien erregistroa duenez gero, beharrezko pausoak emango direla erregistro horiek modu bateragarrian jaso ahal izateko eta herri-erakundeek erraz kontsultatu ahal izateko, euskara tituluen eta ziurtagirien erregistro bateratu horren kudeaketa hizkuntza politikaren eskumena duen sailaren ardura izanik.

Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan aurreikusitakoa betez, urriaren 16ko 222/2012 Dekretuak sortu zuen eta arautzen du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB). ETZEBa eratu zenetik igaro diren urteak agerian utzi dute tresna horren garrantzia herritarrentzat zein sektore publikoko erakundeentzat.

Herritarrei dagokienez, ETZEBak aukera ematen die beren euskararen ezagutzari buruz erakunde ezberdinetan lortutako titulu eta ziurtagiri guztiak, Internet bidez, leku bakar batean kontsultatzeko eta horien egiaztatzea eskuratzeko, erakundez-erakunde ibili beharrean. Halaber, sektore publikoko erakundeek ETZEBa

zuzenean kontsultatu dezaketenez, kasu gehienetan herritarrek ez daukate egiaztagiri horiek eskuratzeko eta aurkezteko premiarik ere.

Sektore publikoko erakundeen kasuan, ETZEBa ezinbesteko tresna bihurtu zaie langileen kudeaketaren alorrean, digitalizazio garai hauetan, paperezko ziurtagirien bidezko kudeaketa ekidituz, zalantzazko hainbat kasu argitzen lagunduz eta espedienteen kudeaketa arinduz.

Horregatik guztiagatik erabaki da aipatutako Dekretua aldatzea.

-DEKREUAREN TESTUAREN AZTERKETA

Testuaren azterketari gagozkiola, ekimen arautzailea proposatzen duen Sailaren aholkularitza juridikoaren txostenak beren beregi zehazten ditu dekretu honen testua aztertzeke kontuan izan beharko ditugun arauak:

- 8/2003 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena (hemendik aurrera, 8/2003 Legea).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio prozedura erkideari buruzkoa (hemendik aurrera, 39/2015 Legea).
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa (hemendik aurrera, 10/1982 Legea).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (hemendik aurrera, 3/2018 Legea).

Testuaren 1. artikulua 222/2012 Dekretuaren azalpen-zatiaren 2. lerroaldea aldatzen du. 2. artikulua, berriz, dekretu horren azalpen-zatiaren 3. lerroaldea aldatzen du.

3. artikulua dekretuaren 1. artikulua aldatzen du, eta honela uzten du:

1. artikulua.– Objektua eta izaera.

1.– Dekretu honen bidez Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen da.

2.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuak (ETZEB) administrazio izaera du, eta hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dago atxikita, horren mende egonik, eta horrek antolatu eta kudeatuko du.

3.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) doako zerbitzu publikoa da, sektore publikoko erakundeei nahiz herritarrei hauek duten euskararen ezagutza mailari buruzko informazio ofiziala eskaintzen diena, egiaztatuta dituzten titulu eta ziurtagiri ezberdinak zein, euskara gaitasunaren beste adierazle batzuei loturik, legedian aitortutako salbuespenak oinarri hartuta.

4.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuaren (ETZEB) funtzionamenduak informatika euskarria izango du oinarri, kudeaketa nahiz bere zereginak betetzea igorpen elektroniko bidez egitea ahalbidetuko duena.

4. artikulua 2. artikulua aldatzen du, eta honela uzten du:

2. artikulua.– Eragin eremua.

1.– Euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeek kontsultak egin ahal izango dituzte Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB).

2.– Halaber, Erregistro Bateratuaren organo kudeatzaileak baimena eman ahalko die sektore publikoko beste erakunde batzuei kontsultak egin ahal izateko Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) hizkuntza normalizatzeko prozesurako baliagarria dela ondorioztatzen duenean; erakunde hauek ere dekretu honetan araututako baldintzetan gauzatu beharko dituzte kontsultak.

3.– Era berean, kontsultak egin ahal izango dituzte Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) euskararen ezagutzari buruzko titulu edo ziurtagiriren bat egiaztatuta edota, euskara gaitasunaren beste adierazle batzuei loturik, legedian aitortutako salbuespena duten herritarrek.

5. artikulua 3. artikulua aldatzen du, honela uzteko:

3. artikulua.– Datuen jatorria.

1.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuak (ETZEB) euskararen ezagutzaren egiaztapenei buruzko datuak jasoko ditu, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP), hezkuntzaren arloan eskumena duen sailakX, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE), eta Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak kudeatzen dituzten erregistroetatik.

2.– Halaber, Erregistro Bateratuaren organo kudeatzaileak baimena eman ahalko die EAEko legediaren arabera euskal herri-administrazioetan onartutako euskararen ezagutzari buruzko titulu edo ziurtagiriak ematen dituzten beste erakundeei, zein, euskara gaitasunaren beste adierazle batzuei loturik, legedian aitortutako salbuespenak igortzen dituztenei, beren erregistroetako datuak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria (ETZEB) igortzeko; erakunde hauek ere dekretu honetan araututako baldintzetan eta Erregistro Bateratuaren organo kudeatzaileak ematen dien jarraibideei lotuz gauzatu beharko dituzte beren igorketak.

3.– Jatorrizko erregistroek iraun eta euren zereginak betetzen jarraituko dute. Erakunde eskudun bakoitzak bere erregistroa kudeatzen segituko du, eta erregistro horiek Erregistro Bateria elikatuko dute, honek informazio eguneratua izan dezan. Jatorrizko erregistroak kudeatzen dituzten erakunde arduradunek bermatuko dute Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria igorritako datuen zuzentasuna.

6. artikulua 4. artikulua aldatzen du, eta honela uzten du:

4. artikulua.– Egitekoak.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria (ETZEB) egiteko hauek ditu:

1.– 6.1 artikuluan zehaztutako datuak erregistro ezberdinetatik biltzea.

2.– 2. artikuluan jasotako erakundeei informazioa ematea, eskatzen dutenean, kasu hauetan:

a) Euren zerbitzuko langileek lortutako euskararen ezagutzaren egiaztapenei buruzko informazioa. Kasu hauetan, erakundeak ez du eragindako pertsonen aurretiazko baimena eskatu beharko Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria (ETZEB) jo ahal izateko.

b) Erakunde horiek deitutako hautaketa prozesuetan eta lanpostuak betetzeko prozesuetan parte hartzen ari diren herritarrek lortu dituzten euskararen ezagutzaren egiaztapenei buruzko informazioa, deialdi horietan euskararen ezagutza maila egiaztatzea baldintza edo meritu baloragarria denean. Kasu hauetan, erakundea herri-administrazioa bada ez du eragindako interesdunen aurretiazko baimena eskatu beharko Erregistro Bateria jo ahal izateko, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat; gainerako erakundeen kasuan beharrezkoa izango da prozesuan parte hartzen duten herritarrek baimen garbia ematea deialdia egin duen erakundeari, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria (ETZEB) kontsulta egin ahal dezan.

c) Euren zereginak betez, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateria (ETZEB) kontsulta egin nahi duten beste egoera batzuk. Kasu hauetan, beharrezkoa izango da eragindako herritarren aurretiazko baimena izatea.

3.– Eskatzen duen herritarrari informazioa ematea berak lortutako euskara egiaztapenen gainean.

7. artikulua 6. artikulua aldatzen du, bildu beharreko datuei buruzkoa. 8.ak, aldiz, 7. artikulua aldatzen du, datuen bilketa eta eguneraketari buruzkoa.

9. artikulua 8. artikulua aldatzen du, eta honela uzten du idatzita:

8. artikulua.– Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuko (ETZEB) kontsultak.

1.– Dekretu honen 2. artikuluan jasotako erakundeek kontsultak egin ahal izango dituzte Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB), Internet bidez.

Herritar bati edo batzuei buruzko kontsultak egin ahal izango dira, 4.2 artikuluan xedatutakoa betez. Kontsultaren emaitza gisa, ziurtagiri balioa duen egiaztagiria erdietsiko da, lortutako informazioa islatuz. Egiaztagiri honetan kontsulta egindako data eta ordua azalduko dira, eta datu hauek:

- a) Izen-abizenak.
- b) Nortasun agiriaren, pasaportearen edo bizitoki-txartelaren zenbakia.
- c) Egiaztatutako tituluak zein ziurtagiriak edota salbuetsitako mailak.
- d) Tituluen, ziurtagirien zein salbuespenen balio data.
- e) Lortutako tituluak zein ziurtagiriak parekatuta dauden Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailak.

2.– Herritar orok egin ahal izango ditu kontsultak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB), Internet bidez, berak lortutako euskararen ezagutzen egiaztapenei buruz.

Kontsultaren emaitza gisa, ziurtagiri balioa duen egiaztagiria erdietsiko da, euskara maila era fidagarrian egiaztatzeko bidea izango dena, lortutako informazioa islatuz. Egiaztagiri honetan kontsulta egindako data eta ordua azalduko dira, eta datu hauek:

- a) Izen-abizenak.
- b) Nortasun agiriaren, pasaportearen edo bizitoki-txartelaren zenbakia.
- c) Egiaztatutako tituluak zein ziurtagiriak edota salbuetsitako mailak.
- d) Tituluen, ziurtagirien zein salbuespenen balio data.
- e) Lortutako tituluak zein ziurtagiriak parekatuta dauden Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailak.

10. artikulua 9. artikulua aldatzen du, eta honela uzten du:

9. artikulua.– Kudeaketa organoa.

Hizkuntza politika gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, kudeaketa organo gisa, euskararen erabileraren normalizazioaren esparruan esleituta dituen zereginak

betetzeko kontsultak egin ahal izango ditu Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (ETZEB) interesdunek dekretu honen 2. artikuluan jasotako erakundeei emandako informazioari loturik.

Halaber, zeregin horietarako datu orokortuak behar dituzenean, lanpostu edo herritar zehaztuei lotu gabeak, Erregistro Bateratuko informazioa modu bereiztuan eskuratuko du, hau da, lagun zehatzekin lotzea ezinezkoa dela bermatuz.

11. artikulua, 222/2012 Dekretuaren 11. artikulua aldatzen du, honela uzteko:

11. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuak (ETZEB) herritarren datu pertsonalen babesa bermatuko du, datu pertsonalen babesari buruzko araudiak xedatutakoarekin bat.

Horretarako, hizkuntza politika gaietan eskumena duen sailak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuaren (ETZEB) euskarria den informatika aplikazioa sortuko du, eta beharrezko segurtasun neurriak ezarriko ditu.

Azkenik, xedapen gehigarri bakarrak 222/2012 Dekretuaren azalpen-zatiaren euskarazko testuaren azken lerroaldea osatzen du, eta azken xedapenak Dekretua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

II.- Izapidetzea

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotako manuzko izapideak bete behariko ditu, testuarekin batera igorritako txosten juridikoan adierazi bezala.

Espedientean hasierako agindua eta aurretiazko onespren-agindua jasota daude, biak ere Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak izenpetuak. Hortaz, bete egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren 5. eta 7.1 artikuluetan xedatutakoa.

Hasierako aginduan berariazko aipamena egiten zaie arauaren xedeari eta helburuari, arauak izango duen eragin ekonomikoari, arauaren bideragarritasun juridikoari eta materialari, eta antolamendu juridikoan izango dituen ondorioei.

Hartara, esaten da indarrean dagoen dekretuak ez duela biderik aurreikusten gaur egun EAEko legedian baliokideturako baina EAetik kanpoko erakundeek emandako titulu eta ziurtagiriak jasotzeko, eta aldaketok hutsune hori zuzentzera datozela, betiere, erakunde horiek indarrean dagoen dekretuan araututako zein Erregistroaren organo kudeatzaileak emandako jarraibideak beteko dituztela bermatzeko.

Halaber, esaten da indarrean dagoen dekretuak ez duela biderik ematen Euskadiko sektore publikoaren zati ez diren gainerako erakunde publikoek ETZEBa kontsultatu ahal izateko, eta ikusi dela euskararen normalizazioaren ikuspegitik kasuan-kasu bide hori irekitzea onuragarria izan daitekeela. Hortaz, aldaketon bitartez, aurrerantzean, organo kudeatzaileak, dekretuan ezarritakoa betetzeko baldintzarekin, horrelako baimenak eman ahal izatea arautuko duela.

Azkenik, esaten da indarrean dagoen dekretuaren aldaketa baliatuko dela datu pertsonalei buruzko babes-neurriak eta lege-aipamenak Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikora egokitzeko eta sektore publikoaren kontratazioetan euskararen ezagutzari buruz txertatzen diren kaudimen-baldintzen gaia berariaz jasotzeko.

Hasierako aginduak jaso egiten ditu baita araua aurrera ateratzeko bidezkotzat jotako izapideak eta txostenak, eta adierazi egiten du parte hartzeko aukera eman ahal izango zaiela egitekoa den arauketak zuzen-zuzenki eragiten dien Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioei, eta jendaurrean jarri ahal izango dela xedapen-proposamena, prozeduran interesdun direnei entzun ahal izateko.

Jendaurreko izapide horri gagozkiola, hasierako aginduan berariaz jaso ez ezik, faltan botatzen da izapide hori gauzatuko den ala ez zehaztea ere, hau da,

Sailaren aholkularitza juridikoaren txostenean adierazi bezala, aginduan bertan jasotzea ez dela beharrezkoa ikusten proiektua jendaurrean jartzea, aldaketek ez dietelako eskubide berririk aitortzen hiritarrei, ezta eskubiderik kendu ere, eta, ondorioz, ez duela zentzurik entzunaldi-izapide hori gauzatzea.

Edonola ere, bete egiten da 8/2003 Legearen 5.1 artikulua hasierako aginduak izan behar duen edukiari buruz jasotakoa.

Bestalde, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua ezartzen du espedienteak memoria ekonomiko bat edukiko duela, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko dela: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Memoria ekonomiko horrek, halaber, egitekoa den arau horren aplikazioak beste herri-administrazio batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du.

Bada, arestian esan dugun bezala, espedientean ez dago jasota memoria ekonomikorik. Horren orde, hasierako aginduan atal berezi bat gorde da arauak izango duen eragin ekonomikoa aztertzeko, eta, Sailaren aholkularitza juridikoak eginiko txostenean ere, beste horrenbeste egiten da, adierazteko proposatutako arauak ez duela eraginik izango Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan, ez gastu eta ez diru sarreretan, eta ez duela ondoriorik izango ere gainerako herri-administrazioentzat edo norbanakoentzat, ez eta horien ekonomian; izan ere, ETZEB Erregistroaren tresna eta euskarri telematikoak dagoeneko erabat garatuta daude, eta kudeaketa hori orain arteko baliabide berdinekin egingo da.

Espedienteak bai jasotzen ditu, ordea, azalpen-memoria eta txosten juridikoa.

Txosten juridikoak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan zehaztutakoa betetzen du.

Txostenean jasotzen denez, begi onez ikusten dute Euskadiko Autonomia Erkidegoaz kanpoko administrazioei ere parte-hartzea ematea. Zehazki, gomendatzen dute EAEz kanpoko bi erakunderi bidaltzea testua, kontsulta egiteko: batetik, Iparralde Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeari; eta, bestetik, Nafarroako Gobernuari.

Izan ere, Dekretuaren eremu subjektiboa zabaldu bada (1.3 artikuluan eta 2.2 artikuluan proposatutako aldaketek sektore publikoko erakundeei kontsultak egitea ahalbidetzen diete), neurri handi batean izan da bi erakunde horiek euren jardunean erregistroaz baliatu ahal izateko.

Txosten hau izenpetzen duen legelariak ere bat egiten du Sailaren aholkularitza juridikoak egindako gomendio horrekin. Euskara hiru administrazio-eremu ezberdinetan hitz egiten den hizkuntza izanik (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde) eta ETZEBen jasotako informazioa hiru administrazio-eremu horietako administrazioek nahiz herritarrek kontsultatu ahal izango dutela aurreikusten dela kontuan izanik, logikoa ematen du arautuko den gaien zeresana duten administrazio-eremu horietako administrazioei eta herritarrei ere entzunaldia ematea. Ez dugu ahaztu behar ere, dekretu-proiektuak ekarriko dituen aldaketei esker, ETZEBek EAEtik kanpoko erakundeek emandako titulu eta ziurtagiriak ere jaso ahal izango dituela.

Txostenak dioen bezalaxe, 1.3 eta 2.2 artikuluan proposatutako aldaketek horretarako aukera ematen dute, sektore publikoko erakundeei eta herritarrei zabaltzen baitiete, modu orokorrean, kontsultak egiteko eskubidea –indarrean dauden artikuluen idazketak egin ez bezala, dekretu horren eragin eremuko herri administrazio, entitate, zuzenbide pribatuko ente publiko eta erakundeei nahiz herritarrei soilik aitortzen baitie eskubide hori, Euskal Autonomia Erkidegoko herri

administrazioetan hizkuntza normalizatzeko prozesua arautzen duen araudiak eragiten dienean-.

Egia da, bai, memoria osagarrian esaten den bezala, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuan jasotzen diren eskumenen lurralde-eremua aintzat hartuta, bi lurralde horiek (Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde) gure eskumenen lurralde-eremutik kanpo geratuko liratekeela, baina egia da, baita ere, bi aldaketa horien idazketak zabaldu egiten duela ukitutako administrazio eta herritarren eragin-eremua, eta ez duela soilik EAEko lurralde-eremuko administrazioetara eta herritarretara mugatzen.

Ildo horretatik, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.5 artikulua xedatutakoa har genezake abiaburu, eta analogiaz aplikatu. Artikulu horrek lehenetsi egiten du, administrazio-mugez gaindi, euskarak benetan ukitutako eragin-eremua, eta hori kontuan hartuta, honakoa aurreikusten du: "Euskara beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturazkoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren Estatuekin kulturazko harremanak bideratzeko itun hitzarmenak izenpetu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera".

Bada, artikulu horretan esaten dena eredu moduan izanik, eta, analogiaz, kasu honetara egokituta, ez dirudi arazo handirik legokeenik Nafarroako Foru Komunitateari eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeari entzunaldia emateko, erregistroak arautuko dituen tituluak beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den euskarari buruzkoak direla kontuan hartuta, erregistroak lurralde horietan ematen dituzten titulu eta ziurtagiriak ere jaso ahal izango dituela kontuan hartuta, eta euskara zaindu eta bultzatzea euskara hitz egiten den euskal lurraldeetako sektore publikoko administrazioei eta herritarrei ere badagokiela kontuan hartuta.

Sailaren aholkularitza juridikoaren txostenari buruzko aipamenekin amaitzeko, bakarrik esan faltan botatzen direla, txostenaren izenpean, txostenaren egilearen izen-abizenak eta aholkularitza juridikoko buruaren ikus onespena. Horren ordez, "Aholkularitza juridikoa. Elektronikoki sinatua" ageri da, baina ez da ageri txostena egin duen teknikari juridikoaren izen-abizenik ezta aholkularitza juridikoko buruaren ikus onespenik.

Gomendagarria da txostena egin duen teknikari juridikoaren izen-abizenak eta sinadura txostenean jasotzea, txostenari berezkoa zaion balio juridikoa emateko; izan ere, sinadurarik ez daukan dokumentu batek ez dauka inolako balio juridikorik. Txostenak ez ditu aholkularitza juridikoa deritzon izate abstraktu batek sinatzen, baizik eta txostena egin duen aholkularitza juridiko horretako teknikari juridikoak. Eta hala jaosota agertu beharko luke izenpean.

Gomendagarria da, baita, aholkularitza juridikoko buruaren ikus onespena eta sinadura idatziz jasotzea teknikari juridikoaren ondoan, ikus onespen horrek ematen baitio balio erantsia txostenari eta horrek bihurtzen baitu teknikariaren txosten juridikoa Zuzendaritzaren txosten.

Egia da Tramitagunen bai agertzen direla txostena aplikaziora igo duen pertsonaren izen-abizenak, baina horrek ez digu bide ematen txostena nork egin duen jakiteko, gerta baitaiteke txostena Tramitagune aplikaziora igotzen duena teknikari juridikoa bera izatea edo Zuzendaritza horretako beste lankideren bat (administrariren bat, zuzendariaren idazkaria edo beste inor). Horrek mesede gutxi egiten dio dokumentuaren segurtasun eta baliogarritasun juridikoari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluan ezarritakoari dagokionez, hasieratik zintzilikatu dira dekretu-proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak. 8/2003 Legearen 7. artikulua zehazten duenez, aldez aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du, euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena (esp. 2013/00518) (a/20130135): "*Xedapen orokorren proiektuak, 8/2003 Legearen 5. artikuluko Hasierako Aginduan zehaztutako teknikaren bidez bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta gero, Hasierako Agindu hori onartu duen organo berak alde aurreko onarpena eman beharko die testuaren bi bertsio linguistikoei, 8/2003 Legearen 7. artikuluan esaten denaz bat, betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio-faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da". ,*

Beraz, legezketasun-azterketara igortzen den testuak, nahitaez, elebiduna izan beharko du -aztergai dugun kasuan gertatu bezala- legezketasun-txostenean egiten diren ohartarazpenak bi testuetan jaso ahal izateko.

Kontuan izanda, gainera, ofizialak eta benetakoak testuaren bi bertsio linguistikoak direla, eta bi bertsioen arteko zehaztasuna eta baliokidetasun juridikoa segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak direla, logikoa da bi bertsioek jarraitu behar izatea 8/2003 Legeak aurreikusten duen prozedura osoa, hau da, kontsulta-izapidea, audientzia publikoa, txostenak... Horrela jokatuta, prozeduraren bermeak bi bertsiook dituzte, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridikoa handiagoa izatea dakar.

Bestalde, legezketasun-azterketara aurkeztu diguten testuak, "CAPV" laburdura darabil gaztelaniazko bertsioan Euskadiko Autonomia Erkidegoa izendatzeko, eta "EAE" laburdura euskerazkoan.

Bada, testuari zehaztasun eta segurtasun juridiko handiagoa emateko besterik ez bada ere, uste dugu komenigarria litzatekeela modu bakar eta bateratuan izendatzea, hau da Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE) edo Euskadi

gaztelaniazko bertsioan, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE) edo Euskadi euskarazkoan. Eta izendapen hori proposatzen dugu Gernikako Estatutuak izendapen hori darabilelako, bai euskaraz bai gaztelaniaz, autonomia-erkidegoa izendatzeko:

1.artikulua. Euskal herriak, bere naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua iristeko, Autonomia Erkidego gisa eratzten du bere burua Espainiako Estatuaren barruan, **Euskadi** zein Euskal Herria izenez, Konstituzioarekin eta oinarrizko erakunde-arau duen Estatutu honekin bat.

Art. 1.º El Pueblo Vasco o Euskal-Herria, como expresión de su nacionalidad, y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de **Euskadi** o País Vasco, de acuerdo con la Constitución y con el presente Estatuto, que es su norma institucional básica.

Beraz, iradokitzen dugu arauaren gaztelaniazko bertsioan “comunidad autónoma de Euskadi (CAE)” edo “Euskadi” izendapena erabil dadila, eta euskarazkoan “Euskadiko autonomia erkidegoa (EAE)” edo “Euskadi”, horixe delako Gernikako Estatutuaren 1. artikulua, bai euskaraz bai gaztelaniaz, autonomia-erkidegoa izendatzeko darabilen termino bateratua, eta horixe delako Eusko Jaurlaritzak EAE nazioartean ezagutzera emateko abiatu duen estrategia berriaren baitan - Euskadi Basque Country 2025- hautatu duen izendapena.

Gauza bera iradokitzen dugu “euskal sektore publikoa” eta “sector público vasco” esapideekin. Euskerazko bertsioan, “euskal sektore publikoa” esapidea “Euskadiko sektore publikoaren” edo “Euskadiko Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren” ordezkatzeari iradokitzen dugu; eta gaztelaniazko bertsioan, “sector público vasco” “sector público de Euskadi” edo “sector público de la comunidad autónoma de Euskadi” esapidearen ordezkatzeari.

Azkenik, dekretu-proiektu hau ez dago Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkion gaien artean, ez baita Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua aurreikusitako eskumenen artean sartzen.

Legezkotasun-txosten hau igorri ostean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari igorri beharko zaio izapidetutako guztia, ekonomiaren eta arauen gaineko manuzko txostena eman dezan.

Txosten juridikoak ondo dioen bezala, behin beharrezkoak diren txosten guztiak bildu eta 8/2003 Legearen 10.2 artikuluan araututako prozeduraren inguruko memoria egin ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztuko zaio xedapen orokorra, onar dezan, zioen azalpenarekin batera; bertan, xedapen orokorra egiteko arrazoiak aipatuko dira labur-labur, bai eta dekretuaren xedea zein den ere. Eranskin gisa joango da, hala dagokionean, indargabetutako edo aldatutako xedapenen zerrenda.

ONDORIOA

Horrenbestez, adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezkotasun-azterketara aurkeztu diguten dekretu-proiektuari.

Hori da igortzen dudana txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.